



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko apirilaren 26a

39. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Gizarte komunikabideei dagokienez herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina (2. or.).

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gizarte komunikabideei dagokienez herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak egindako txostena, Gizarte komunikabideei dagokienez herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Gizarte komunikabideei dagokienez herritarrek dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari buruzko txostena, Nafarroako Parlamentuak eskatuta

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera. Txostenaren arrazoa eta xedea (2. or.).
- II.** Metodologia (3. or.).
- III.** Aplikatzekoa den esparru juridikoa (15. or.).
- IV.** Ondorioak eta iradokizunak (16. or.).

I. SARRERA TXOSTENAREN ARRAZOA ETA XEDEA

2011ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Nafarroa Bai, Bildu Nafarroa eta Ezkerreko parlamentu-taldeak proposatuta:

“Nafarroako Arartekoari herritarrek, gizarte komunikabideei lotuta, dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari buruzko txostena egin dezan eskatzea.”

Nafarroako Parlamentuaren Eledunen Batzarren eskaera horrek Nafarroako Foru Komunitatearen Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 16 d) artikularen babesa dauka. Manu horri jarraiki, Arartekoak, bere eskumenen esparruaren barruan, txostenak egin ditzake Nafarroako Parlamentuak hala eskatuta. Izan ere, haren eskumena Konstituzioak eta Nafarroako Foru Errentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko lege organikoak ezarritako eskubideen eta askatasunen babesa eta hobekuntza da.

Nafarroako Parlamentuaren erabakiak eta parlamentu-taldearen txostenaren eskaerak ez dute eskubidearen arrazoiak azaldu edo foru erakunde honek ikuskatu behar dituen alderdi zehatzak aipatu herritarrek, gizarte komunikabideei lotuta, dituzten hizkuntza eskubideen benetako egoerari dagokionez. Dena den, Nafarroako Parlamentuak egin duen eskaerari modu positiboan erantzun ahal izateko, erakunde hau haren goi mandataria baita, egokitzen jo da txosten monografiko hau 27. artikulua xedatu duen araudia abiapuntutzat hartuta bideratzea. Zehatz-mehatz, euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen artikulua horren 1. zenbakiari jarraiki, berariaz aipatzen baitu gizarte komunikabide publiko zein pribatuetan euskararen sustapena eta laguntza. Manu horrek zera adierazi du:

“1. Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan.

Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu.

2. Foru Komunitateak gestionatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratu du.”

Bestalde, ezin dugu alde batera utzi Nafarroako Parlamentuaren eskaerak txosten hau egitea proposatu zuten parlamentu-talde berdinek abian jarritako beste ekimen batzuekin bat egiten duela. Horiek guztiek euskara komunikabideetan sustatzera zuzendutako aurrekontu partidaren desageretzea dute hizpide. Hala, gure datuen arabera:

– 2011ko abenduaren 16an Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordea bildu zen Topagunearekin lan-saio bat gauzatze aldera, Nabai, Bildu eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek hala eskatuta.

– 2012ko urtarrilaren 11n, Hezkuntza Batzordeak Nabai, Bildu eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu zuten mozioa eztabaidatu eta gaitzetsi egin zuen. Mozio horren bitartez, Nafarroako Gobernuari eskatu zioten, euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 27. artikulua betez, euskarako komunikabideak euskara modu ohikoan eta mailaz maila erabili dezaten behar dituzten baliabide ekonomiko eta materialak hornitu zitzaizkien.

– 2012ko urtarrilaren 17an Hezkuntzako kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran, Nabai parlamentu-taldeak egin zuen ahozko galderari erantzun zion.

– 2012ko urtarrilaren 17ko osoko bilkura berdinan, Bildu parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuari interpelazio bat egin zion, euskarako komunikabideen gaineko politikari buruzkoa eta komunikabide horiek mantentzeari, sustatzeari eta areagotzeari buruzkoa, euskararen inguruko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen III. tituluaren xedatutakoa betetze aldera.

– 2012ko otsailaren 9an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak komunikabideetan euskararen mailaz mailako presentzia lortzeko mozio bat eztabaidatu eta gaitzetsi egin zuen. Mozioa Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu zuten.

Hori guztia dela-eta, azkenean, txostena gai horretan kontzentratu da. Horixe izan baitzen parlamentuko ekimen horiek eragin zituen gaia eta, ondorioz, Arartekoari txostena eskatzea eragin duena.

Edukiari dagokionez, sarrera honen ostean, txostena hiru ataletan banatuta dago: lehenengoa, txostena eratzeke jarraitutako metodologia eta eskumena duen herri-administrazioari, hau da, Nafarroako Foru Komunitateari eskatutako infor-

mazioa zehaztu dira; bigarrenan, aplikagarria den legearen testuingurua deskribatu da; eta hirugarrenan eta azkena den horretan, ikerketaren osteko gogoetak eta egindako iradokizunak jaso dira.

II. METODOLOGIA

1. Nafarroako Parlamentuak eskatu zuen txostena egite aldera, 2011ko abenduaren 1ean, erakunde honek Kultura, Turismo eta Erakundeen Arteko Harremanen Departamentuari eskatu zion, 2012ko urtarrilaren 18a baino lehen, honako informazio hau helaraz ziezaion:

a) Departamentu horrek Nafarroako komunikabide publiko zein pribatuetan gaur egungo euskararen presentziaren inguruan zituen balorazioa eta datuak.

b) Nafarroatik eta Nafarroarentzat lan egiten duten irrati eta telebistetan euskararen presentzia-maila, komunikabide bakoitza zehaztuz.

c) Azken hiru urteetan erabilitako edo erabiliko diren irizpideak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenaren barruan dauden irratiei eta telebistei emisio-lizentziak ematerako orduan.

d) Euskarari buruzko foru legean eragina daukan eremu euskaldunean entzun edo ikus daitezkeen irratietan eta telebistetan euskara erabiltzen dela bermatzen duten neurriak dauden edo hartuko diren eta, erantzuna baiezkoa izanez gero, zeintzuk.

2. Data horretan bertan eta helburu berdinarekin, Hezkuntza Departamentuari eskatu zitzaion, 2012ko urtarrilaren 18a baino lehen, ondorengo informazioa bidal zezan:

a) Departamentu horrek Nafarroako komunikabide publiko zein pribatuetan gaur egungo euskararen presentziaren inguruan zituen balorazioa eta datuak.

b) Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 27. artikulua aipatzen dituen laguntza ekonomiko eta materialari lotutako planei dagokienez:

– Azken lau urtetan zehar onartutako planak: 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteak.

– Hasiera batean onetsi zen aurrekontua komunikabide publiko zein pribatuetan euskararen mailaz mailako presentzia bermatzeko asmoz, bai eta 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteen itxieran betearazitako aurrekontua ere.

– Azken lau urtetan prentsan eta irratian euskara erabiltzeko onetsi diren laguntzen deialdiaren babesean, gizarte komunikabideei onartutako eta

ordaindutako diru-laguntzen zenbatekoa, komunikabide onuraduna, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaindutako diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuz.

– 2012ko ekitaldirako aurreikusi diren laguntza ekonomiko zein materialeko planak eta horri lotutako aurrekontu aurreikuspena.

3. 2012ko urtarrilaren 18an Kultura, Turismo eta Erakundeen Arteko Harremanen Departamentuak egindako txostena jaso zen: Bertan, zera erantzun zuen:

“a) eta b) Nafarroan komunikabideetan dagoen euskararen presentziaren inguruko balorazioa eta datuak

Nafarroako Gobernuak Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren esku dauden datu berrienak dagoeneko existitzen ez den Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak 2011. urtean zehar egin zuen txosten baten aurrerapenari dagozkio. Horren helburua zen gaur egun Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuaren barruan saioak ematen dituzten ikus-entzunezko komunikabideen euskararen erabilerari buruzko laburpen deskribatzailea egitea. Bertan, zerbitzua eskaintzeko baimena ematen duen eta beharrezkoa den tituluaren babespean lan egiten duten komunikabideak, zein edukiak euskaraz ematen dituzten eragileak sartu ziren, nahiz eta zerbitzua emateko beharrezkoa den legezko baimena ez eduki. Modu berean, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren ‘Nafarroako Ikus-entzunezkoen Barometroa 2010’ izenekoaren datuak jaso dira. Ikus-entzunezkoen arloaren urteko ikerketa horrek, haren galdeketa barruan, nafarrek komunikabideetan euskararen erabileraren inguruan egindako balorazioa barne hartzen zuen. Aurreko informazioa osatuz, Iruñean eta haren eskualdean egindako Ikerketa Soziolinguistikoak (Nafarroako Gobernuak 2006. urtean gauzatu zuenak) herritarrek komunikabideetan euskararen erabileraren gainean egindako balorazioari buruzko datuak jasotzen ditu.

Datu horiek aintzat hartuta ateratako ondorio nagusiak hauek dira:

Dagoeneko existitzen ez den Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak, 2011. urteari dagokion jarduketa-txostenean, ondoren azaldutako gogoeak egin zituen. Aplikagarria den araudiari dagokionez, ez dago gizarte komunikabideetan euskara erabiltzearen gaineko derrigorrezko xedapenik. Hala ere, ikus-entzunezkoen arloko araudiak, emisioek aintzat hartu behar dituzten printzipioen artean, hau jasotzen du “aniztasun politikoa, erlijio-soa, soziala, kulturala eta hizkuntza aniztasunare-

kiko errespetua” eta “Nafarroako Foru Komunitatearen interesen sustapena (...) eremu horretan kultura eta bizikidetzak bultzatzeko, sustatzeko eta babesteko”.

Nafarroan telebisten emisioei dagokienez, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Batzordeak adierazi zuen euskararen presentzia, funtsean, euskal telebista publikoko ETB-1 kanalean dagoela. Nafarroan 17.000 ikusleaz osatutako ikusleria dauka. Horrez gain, RTVEk Nafarroan daukan lurraldeko zentroak 4 minutuko saio laburra ematen du astelehenetik ostiralera eta, bertan, tituluen bidez, eguneko berri nagusiak aurkezten dira. Bestalde, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Batzordeak dio telebistako baimena duten erkidegoko eta tokiko operadoreek ez dutela inolako edukirik euskaraz eskaintzen.

Irratiaren kasuan, Nafarroako Ikus-entzunezkoen txosten beraren arabera, euskaraz dagoen eskaintza gehiena Xorroxin Irratiarena dela (eremu euskaldunean kokatuta dagoena eta programak soilik euskaraz ematen dituen), bai eta legezko baimenik ez duten beste irrati batzuk –Euskadi Irratia (EITB) euskal irrati publikoa barne-, Punto Radio-Tierra Estella eta izaera publikoa duten beste udaleko bost irrati ere.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Batzordeak egin zuen eta 2010. urteari dagokion azken ikus-entzunezkoen barometroan jasotako datuei jarraiki, nafarrek ikus-entzunezko komunikabideetan euskaraz jasotzen duten programazio kopuruaren inguruan galdetuz gero, elkarrizketatuen % 8k gehiegizkoa dela esan zuen, % 28k egokia dela, % 34k gutxi dela eta % 30ek ez zuen iritzirik eman. Datu horiekin bat eginez, gehiegizkoa dela esan zuen pertsona kopurua handiagoa izan zen hegoaldean (% 15) eta iparraldean, berriz, gehien-goak eskasa zela adierazi zuen (% 59).

Iruñean eta eskualdean egindako Ikerketa Soziolinguistikoak (Nafarroako Gobernuak 2006. urtean egin zuena) ondorioztatu zuen populazioaren % 68k gutxi gorabehera modu positiboan baloratzen duela komunikabideetan euskararen presentzia; % 68,5ek irratiaren kasuan eta % 69k telebistaren kasuan, % 15 baino gehiagok, aldiz, modu negatiboan baloratu zuen.

c) Azken hiru urteetan erabilitako edo erabiltzeko diren irizpideak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenaren barruan dauden irratiei eta telebistei emisio-lizentziak ematerako orduan.

Azken hiru urteetan ez da emisio-lizentziarik eman, ez irratiei ezta telebistei ere. Hurrengo deialdi publikoetarako, Nafarroako Gobernua Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Foru Dekre-

tuaren onarpena amaitzen ari da. Datozen urteetan, irratia eta telebistaren arloko foru politika dekretu horretan oinarrituko da, ikus-entzunezko jarduek arautzeko eta kultura-aktibo gisa sustatzeko, ekonomia sortzen duena eta iritzi publiko askea eta anitza existitzen dela bermatzen duena.

Dekretua Nafarroako Gobernuak onartu behar du, jendaurrean aurkeztu, egokitzen jotzen diren alegazioak gaineratu eta Nafarroako Kontseiluaren txostena eskuratu eta gero.

Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Foru Dekretuak, beste alderdi batzuen artean, baimeak ematearen inguruan erabakiak hartzeko balorazio irizpideak xedatu ditu eta euskara, Nafarroako Gobernuak FM irratiko lizentziak emateko bideratzen dituen deialdietan, balorazio egiteko funtsezko oinarrietako bat da:

12. artikulua. Baloratzeko irizpideak

Baimenen emakidaren inguruan erabakiak hartzeko, deialdian ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuko dira eta, gutxienez, hauek izango dira:

- a) Irratiaren bideragarritasun ekonomikoa.
- b) Proiektuaren ezaugarri teknikoak.
- c) Emisioaren eta programazioaren ezaugarriak.
- d) Lizentzia ez igortzeko konpromisoa, betiere, lege ezarritako epea igarotzen ez bada.
- e) Programazioa euskaraz ematea.
- f) eskaintzen duten estaldura eremuan lizentziarik ez duten irratien sarbidea.

Euskarazko programazioaren emisioaren balorazioa deialdiaren beste orri batean zehaztuko da.

d) Euskara eremu euskaldunerako lan egiten duten irratietan eta telebistetan erabiltzen dela bermatzeko neurriak.

Irratiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak xedatu du euskararen aldeko bereizkeria positiboa FM irratiko lizentziak ematerako orduan, bereziki eremu euskaldunean, Ikus-entzunezko Komunikazio Zerbitzuen Foru Dekretuaren xedapenak garatz.

Nafarroan lizentziak dituzten telebistek dagokienez, Nafarroako Gobernuak, euskararen erabilera sustatzeko aldera, programazioan euskara erabiltzen duen ikus-entzunezko ekoizpena laguntzen deialdiaren barruan sartu du, 2012. urtean laguntza horiek ematerakoan baloratu behar den irizpide gisa.

4. 2012ko urtarrilaren 19an Hezkuntza Departamentuaren erantzuna jaso zen. Hona hemen hitzez hitz:

“1.- Departamentu horrek Nafarroako komunikabide publiko zein pribatuetan gaur egungo euskararen presentziaren inguruan dituen balorazioa eta datuak.

Hezkuntza Departamentuak komunikabideetan euskara erabiltzeko iragarri dituen laguntzen eskatzaileek aurkeztu behar duten dokumentazioak, esleipen irizpideak aplikatzeko aldera, hauxe hartzen du barne: euskara erabiltzen duen orrialde kopurua (idatzizko prentsa) eta emisio-ordu kopurua (irratia). Halaber, euren komunikazio produktuen zabalkunde potentziala ere aitortu dute.

2010. eta 2011. urteko deialdietako eskatzaileek aitortu dituzten datuak hauek dira:

2010. URTEA

GAZTELANIAZ ETA EUSKARAZ			
Idatzizko prentsa	<i>Orrialdeak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Iruñerrian Auzolan</i>	192,00	20,00	6.000,00
<i>Orbela</i>	29,00	20,14	6.500,00
<i>Diario de Navarra</i>	83,00	0,27	52.676,00
<i>Mendixut</i>	48,00	12,50	950,00
<i>Periodico Universitario</i>	20,00	4,00	3.000,00
<i>Entreto2 Auzolan Tierra Estella</i>	18,00	3,40	3.500,00
<i>Barrios de Iruña</i>	9,00	4,16	30.000,00
<i>Vivir en Barañain</i>	9,00	4,16	8.000,00
<i>La Voz de la Medindad</i>	76,00	5,51	2.200,00
<i>Diario de Noticias</i>	620,00	2,00	17.356,00
EUSKARAZ			
Idatzizko prentsa	<i>Orrialdeak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Axular</i>	144,00	100,00	3.000,00
<i>Guaixe</i>	1.408,00	100,00	4.500,00
<i>Pulunpe</i>	308,00	100,00	1.600,00
<i>Mailope</i>	308,00	100,00	1.600,00
<i>Ttipi-Ttapa</i>	1.344,00	100,00	6.000,00
<i>Gazteberri</i>	192,00	100,00	10.000,00
<i>Ekialde</i>	128,00	100,00	1.650,00
Irratiak	<i>Orduak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Aralar Irraitia</i>	1.300,00	100,00	3.200,00
<i>Beleixe Irratia</i>	1.560,00	100,00	11.000,00
<i>Karrape Irratia</i>	882,00	100,00	3.211,00
<i>Esan-Erran Irratia</i>	1.300,00	100,00	3.800,00
<i>Irati Irratia</i>	650,00	100,00	2.800,00
<i>Xorroxin Irratia</i>	2.600,00	100,00	5.000,00

2011. URTEA

GAZTELANIAZ ETA EUSKARAZ			
Idatzizko prentsa	<i>Orrialdeak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Iruñerrian Auzolan</i>	192,00	20,00	6.000,00
<i>Orbela</i>	29,00	20,14	6.500,00
<i>Diario de Navarra</i>	83,00	0,27	52.676,00
<i>Mendixut</i>	48,00	12,50	950,00
<i>Periodico Universitario</i>	40,00	8,33	12.000,00
<i>Entreto2 Auzolan Tierra Estella</i>	18,00	3,40	3.500,00
<i>Entreto2 Auzolan Valdizarbe</i>	30,00	5,68	1.500,00
<i>Barrios de Iruña</i>	9,00	4,16	30.000,00
<i>Vivir en Barañain</i>	9,00	4,16	8.000,00
<i>La Voz de la Merindad</i>	76,00	5,51	2.200,00
EUSKARAZ			
Idatzizko prentsa	<i>Orrialdeak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Axular</i>	144,00	100,00	3.000,00
<i>Guaixe</i>	1.408,00	100,00	4.500,00
<i>Pulunpe</i>	308,00	100,00	1.600,00
<i>Mailope</i>	308,00	100,00	1.600,00
<i>Ttipi-Ttapa</i>	1.344,00	100,00	6.000,00
Irratiak	<i>Orduak/urtean</i>	<i>Portzentajea</i>	<i>Zabalkunde potentziala</i>
<i>Aralar Irraitia</i>	1.300,00	100,00	3.200,00
<i>Beleixe Irratia</i>	1.560,00	100,00	11.000,00
<i>Karrape Irratia</i>	882,00	100,00	3.211,00
<i>Esan-Erran Irratia</i>	1.300,00	100,00	3.800,00
<i>Irati Irratia</i>	650,00	100,00	2.800,00
<i>Xorroxin Irratia</i>	2.600,00	100,00	5.000,00

Departamentu honen esku dauden datuak ez diren arren, urte horiei lotuta, informazioa CIES galdeketa demoskopikoak egiten dituen enpresak burutu duen "Nafarroako komunikabideen entzuleriari buruzko ikerketarekin" osatu daiteke. Ikerketa hori Nafarroako Gobernuaren Komunikazio Zuzendaritza Orokorarentzat egin zen eta orain dela gutxi ondorengo estekan argitaratu zen:

<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/BF1D6670-9DE6-41B0-8D48-F74B6D97B477/207316/EstudioPublicaciones2011.pdf>

2.- Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 27. artikulua aipatzen dituen laguntza ekonomiko eta materialari lotutako planei dagokienez:

2.A) Azken lau urteetan onetsitako laguntza ekonomiko eta materialari lotutako planak: 2007., 2008., 2010. eta 2011. urteak.

Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen laguntza planak, funtsean, urteko izaera duten deialdietan gauzatzen dira.

Azken laur urteetan onetsitako planak aurkezte aldera, 2007., 2008., 2010. eta 2011. urteei dagozkien deialdiak bidali dira. 2009. urtean, hasiera batean egin zen aurrekontu partidaren eta Hezkuntza Departamentuak Euskarabidea izenekoari eman zion zenbatekoaren batuketa 240.000 eurokoa izan zen baina, azkenean, ez zen deialdia burutu, irailaren erdialdetik aurrera urte horretan laguntzen deialdi berriak egitea galarazi zuen gobernuaren erabakia aplikatu baitzen.

Urtea	Deialdia	NAO	Kontsulta NAO n
2007	Apirilaren 10eko 73/2007 Ebazpena	53	http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2007/53/Anuncio-8/
2008	Azaroaren 24ko 40/2008 Ebazpena	145	http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2008/145/Anuncio-9/
2010	Otsailaren 23ko 5/2010 Ebazpena	34	http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2010/34/Anuncio-4/
2011	Martxoaren 22ko 11/2011 Ebazpena	74	http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2011/74/Anuncio-8/

Urtero egin den komunikabideetan euskara erabiltzeko laguntzen deialdi arruntez gain, komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko emandako laguntza beste modu hauetan ere gauzatu da:

KAZETARIEN PRESTAKUNTZA:

Kazetariak euskaraz prestatzeko helburuarekin (Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunaren 11.g artikulua barruan dagoen gomendioa), Euskarabideak komunikabideentzako laguntza deialdietan berriazko atal bat gaineratu zuen euskara dakiten eta Kazetaritzan lizentziatuak diren profesionalen prestakuntza gastuei dagokienez diruz laguntzeko. Deialdietan parte hartu zuten komunikabideek ez zituzten laguntzak eskatu, beraz, 2010. urtetik aurrera, beste formula batzuk bilatzeko erabakia hartu zen.

Nafarroako Unibertsitateak zenbait programa garatu ditu unibertsitateko ikasleek prestakuntza-praktikak egin ditzaten Enpresa Fundazioa-Nafarroako Unibertsitatea izenekoaren bitartez.

Lortu nahi ziren helburuekin bat datozenek, 2010. eta 2011. urteetan hitzarmen bat sinatu zen, dagokion gobernuaren erabakiaren bidez baimendutakoa, euskara dakiten ikasleen prestakuntza errazteko xedearekin, betiere, berriak zabaltzeko euskara erabiltzen duten komunikabideetan.

Hitzarmen horren barruan ondorengo laguntza motak ezarri dira praktikak egiteko:

Udako praktikak. Ekainetik irailera bitartean egiten direnak dira. Denboraldi horretan hautagai posibleak oportetean baitaude. Mota horretako praktikek gehienek ere lau hilabete iraungo dute eta gutxienez hilabete bat. Lanaldia sei ordukoa izango da. Hilabete osoagatik ezarritako zenbatekoa 600 eurokoa da. Diru guztia gastatzen ez bada, hurrengo motarako erabiliko da.

Neguko praktikak. Ikasleen eskola-denboraldiarekin batera gertatzen diren praktikak dira, beraz, asteburuetan gauzatzen dira, sei orduko lanaldietan. Mota horretako praktikek gehienek ere lau hilabete iraungo dute eta gutxienez hilabete bat. Mota horrentzat ezarri den zenbatekoa 225 eurokoa da hilabete oso batengatik.

ZE BERRI? ALDIZKARIAREKIN LANKIDE-TZAN ARITZEA

Ze Berri? aldizkaria tokiko zenbait erakundek editatzen duten aldizkaria da eta euskarari buruzko berriak euskaraz zabaltzen ditu herritarrek informatzeko xedearekin. Lankidetza hori aurreko urtetan zehar zehazten joan da: aldizkaria editatzen duten tokiko erakundeei laguntzak ematen

zaizkie, editatutako ale batean 4 orri finantzatzen dira eta 3.000 ale erosten dira ikastetxeetan eta liburutegi sareetan banatze aldera.

IKUS-ENTZUNEZKO FUNTSAK ESKURATZEA

Nafarroako Euskararen Mediatekako funtsak handitzeko helburuarekin, azken urte hauetan Nafarroako euskarako komunikabideek editatzen dituzten ikus-entzunezko funtsak erosi dira.

2.B) Hasiera batean onartutako eta gauzatutako aurrekontuak, 2007., 2008., 2010. eta 2011. urteetako deialdiei dagozkienak.

Urtea	Deialdia	Zenbatekoa	Partida guztira	Onartutakoa	Zenbatekoa	Ordaindutakoa	Zenbatekoa
2007	Apirilaren 10eko 73/2007 Ebazpena	298.250,00	298.250,00	Abuztuaren 2ko 142/2007 Ebazpena	298.249,49	Emakidan eta abenduaren 31ko 236/2007 FAn	285.866,49
2008	Azaroaren 24ko 40/2008 Ebazpena	240.000,00	310.000,00	Abenduaren 31ko 59/2008 Ebazpena	240.000,00	Emakidan	240.000,00
2010	Otsailaren 23ko 5/2010 Ebazpena	220.000,00	230.000,00	Ekainaren 30eko 37/2010 Ebazpena	220.000,00	Emakidan eta abenduaren 23ko 65/2010 An	220.000,00
2011	Martxoaren 22ko 11/2011 Ebazpena	210.000,00	230.000,00	Uztailaren 18ko 31/2011 Ebazpena	210.000,00	Emakidan eta abenduaren 5eko 49/2011 An	204.663,08

2007. urtean deialdian Nafarroako Komunikabideentzako Laguntzen partida osoa sartu zen.

2008. urtean hasierako partida 310.000 eurokoa izan zen. Ekainean, Nafarroako Gobernuak partidak blokeatu egin zituen eta deialdia ez zen izapidetu 240.000 euroko zenbatekoarekin deialdi bat egiteko baimena lortu arte.

2010. urtean, partidaren zenbateko osotik, 220.000 euro deialdiari esleitu zitzaizkion eta 10.000 euro FEUN izenekoarekin (kazetarietarako praktikak) sinatutako lankidetza hitzarmenaren barruan zeuden praktikei esleitu zitzaizkion.

2011. urtean partida osotik 210.000 euro deialdiari esleitu zitzaizkion, 5.000 euro FEUN izenekoarekin (kazetarietarako praktikak) sinatutako lankidetza hitzarmenerako izan ziren eta 15.000 Euskararen Mediatekari eman zitzaizkion, Nafarroako komunikabideetan eskuragarri dauden ikus-entzunezko funtsak erosteko.

2.C) Azken lau urtetan prentsan eta irratian euskara erabiltzeko onetsi diren laguntzen deialdiaren babesean, gizarte komunikabideei onartutako eta ordaindutako diru-laguntzen zenbatekoa, komunikabide onuraduna, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordaindutako diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuz.

Ondoren, deialdiak komunikabide bakoitzari eman dizkion zenbatekoak zerrendatu ditugu, bigarren zutabea ordaindutako zenbatekoak azaltzen dira eta hirugarren zutabea alaketan arrazoiak azaldu dira.

2007

Komunikabidea	Onartutakoa	Ordaindutakoa	
Ttapi ttapa	17.415,73	17.415,73	
Xorroxin Irratia	26.065,85	24.031,58	*Ez zen beka gauzatu.
Laisterkan	2.026,33	2.026,33	
Aralar irratia	13.039,86	13.039,86	
Mailope	6.662,94	6.662,94	
Diario de Navarra SA	13.863,24	13.863,24	
Zer Berri?	12.215,56	12.215,56	
Karrape irratia	11.196,53	11.196,53	
Pulunpe	5.904,56	5.904,56	
Guaixe	15.546,86	15.546,86	
Lurra	4.735,36	4.735,36	
Axular aldizkaria	4.875,32	4.875,32	
Karrika aldizkaria	4.333,62	4.333,62	
Esan Erran irratia	11.879,25	11.879,25	
Xaloe Telebista	17.194,49	17.194,49	
Ttapi-ttapa Telebista	19.467,32	19.467,32	
Gu geu	2.341,68	2.341,68	
La Verdad	6.573,62	0	*Ez zen gasturik justifikatu.
Mendixut	3.745,11	0	*Ez zen epean justifikatu.
Txantrean Auzolan	3.452,76	3.452,76	
La Voz de la Merindad	3.809,54	3.809,54	
Beleixe Irratia	13.176,41	13.176,41	
Marmari Aldizkaria	1.750,00	1.750,00	
Aldapa	3.860,51	3.860,51	
Xuka	4.225,28	4.225,28	
Orbela	2.176,53	2.176,53	
Ibaialde	3.045,02	3.045,02	
Xapo Aldizkaria	800,00	800,00	
Nabarra	13.136,28	13.136,28	
The Balde	2.539,23	2.539,23	
ADN Vivir Pamplona	6.520,21	6.520,21	
Axular on-line	392,00	392,00	
Xuka on-line	1.335,29	1.335,29	
Ttapi-ttapa on-line	2.225,49	2.225,49	
Ostoki	3.349,20	3.349,20	
ADN Vivir Barañain	1.625,67	1.625,67	
Periodico Universitario	1.863,79	1.863,79	
Ekialde	5.227,43	5.227,43	
Gazteberri	5.525,36	5.525,36	
Xorroxin on-line	1.780,39	1.780,39	
Donibane	3.420,96	3.420,96	
Nabarrería.com	1.112,74	1.112,74	
Guaixe on-line	1.780,39	1.780,39	
Diario de Noticias	11005,78	11005,78	
	298.249,49	285.866,49	

2008

Komunikabidea	Onartutakoa	Ordaindutakoa	
<i>Ttipittapa</i>	13.993,74	13.993,74	
<i>Xorroxin Irratia</i>	16.205,95	16.205,95	
<i>Laisterkan</i>	6.298,56	6.298,56	
<i>Irati irratia</i>	14.400,00	14.400,00	
<i>Aralar irratia</i>	9.449,08	9.449,08	
<i>Mailope</i>	6.997,59	6.997,59	
<i>Diario de Navarra SA</i>	6.377,28	6.377,28	
<i>Karrape irratia</i>	8.280,27	8.280,27	
<i>Pulunpe</i>	7.232,05	7.232,05	
<i>Guaixe</i>	11.579,69	11.579,69	
<i>Lurra</i>	3.956,65	3.956,65	
<i>Axular aldizkaria</i>	5.945,42	5.945,42	
<i>Esan Erran irratia</i>	9.659,22	9.659,22	
<i>Xaloe Telebista</i>	12.724,26	12.724,26	
<i>Ttipi-ttapa Telebista</i>	13.915,74	13.915,74	
<i>Gu geu</i>	6.399,87	6.399,87	
<i>Txantrean Auzolan</i>	3.402,33	3.402,33	
<i>La Voz de la Merindad</i>	3.412,52	3.412,52	
<i>Beleixe Irratia</i>	9.685,48	9.685,48	
<i>Marmari Aldizkaria</i>	900,00	900,00	
<i>Mendixut</i>	2.655,00	2.655,00	
<i>Aldapa</i>	3.035,19	3.035,19	
<i>Orbela</i>	3.417,93	3.417,93	
<i>Ibaialde</i>	3.176,37	3.176,37	
<i>Xapo Aldizkaria</i>	775,00	775,00	
<i>Nabarra</i>	9.051,28	9.051,28	
<i>The Balde</i>	4.351,16	4.351,16	
<i>Ttipi-ttapa on-line</i>	1.807,07	1.807,07	
<i>Ostoki</i>	3.131,68	3.131,68	
<i>ADN Vivir Barañain</i>	1.538,32	1.538,32	
<i>Periodico Universitario</i>	1.896,82	1.896,82	
<i>Ekialde</i>	6.906,42	6.906,42	
<i>Gazteberri</i>	6.188,57	6.188,57	
<i>Xorroxin on-line</i>	1.661,65	1.661,65	
<i>Donibane</i>	3.156,49	3.156,49	
<i>Guaixe on-line</i>	1.592,91	1.592,91	
<i>Barrios de Iruña</i>	2.231,15	2.231,15	
<i>ADN Navarra</i>	1.553,09	1.553,09	
<i>Berriozar</i>	3.205,38	3.205,38	
<i>Gazteberri.info</i>	1.229,39	1.229,39	
<i>Mendixut On-line</i>	812,98	812,98	
<i>Diario de Noticias (Zeroa Multimedia)</i>	5.810,45	5.810,45	
	240.000,00	240.000,00	

2010

Komunikabidea	Onartutakoa	Ordaindutakoa	
<i>Ttipittapa</i>	13.679,73	13.679,73	
<i>Xorroxin Irratia</i>	25.649,50	25.649,50	
<i>Irati irratia</i>	11.040,73	11.040,73	
<i>Aralar irratia</i>	12.000,00	12.000,00	
<i>Mailope</i>	5.724,72	5.724,72	
<i>Diario de Navarra SA</i>	3.852,38	3.852,38	
<i>Karrape irratia</i>	13.679,73	13.679,73	
<i>Pulunpe</i>	11.200,00	11.200,00	
<i>Diario de Noticias (Zeroa Multimedia S.L.)</i>	6.420,63	6.420,63	
<i>Guaixe (Bierrik)</i>	13.679,73	13.679,73	
<i>Axular Kultur Taldea (Axular)</i>	10.259,81	10.259,81	
<i>Esan Erran irratia</i>	14.840,00	14.840,00	
<i>La Voz de la Merindad</i>	6.420,63	6.420,63	
<i>Beleixe Irratia</i>	17.099,67	17.099,67	
<i>Mendixut</i>	6.420,63	6.420,63	
<i>Orbela</i>	4.650,00	4.650,00	
<i>ADN Vivir Barañain</i>	1.372,37	1.372,37	
<i>Periodico Universitario</i>	3.852,38	3.852,38	
<i>Ekialde</i>	5.756,68	5.756,68	
<i>Gazteberri</i>	13.679,73	13.679,73	
<i>Guaixe on-line</i>	1.709,97	1.709,97	
<i>Barrios de Iruña</i>	1.719,20	1.719,20	
<i>Mendixut On-line</i>	2.368,80	2.368,80	
<i>Iruñerrian Auzolan</i>	7.704,74	7.704,74	
<i>Entreto2 Auzolan Tierra Estella</i>	2.650,00	2.650,00	
<i>Diario de Noticias Digital</i>	2.568,24	2.568,24	
	220.000,00	220.000,00	

2011

Komunikabidea	Onartutakoa	Ordaindutakoa	
ALDIZKARI S.L. Iruñerrian Auzolan	8.683,60	5.065,43	7/31n jarduera eten zuen
ALDIZKARI S.L. Orbela	4.125,00	2.406,25	7/31n jarduera eten zuen
DIARIO DE NAVARRA S.A. Diario de Navarra	4.341,80	4.341,80	
LABIANO MOSO, Rita Y MADDOZ IBAÑEZ, Maite Mendixut	8.683,60	8.683,60	
NAVARPRENSA S.L. Periodico del Estudiante	3.388,50	3.388,50	
NEXO DISEÑO Y COMUNICACIÓN S.L. Entreto2 Auzolan Tierra Estella	4.341,80	4.341,80	
NEXO DISEÑO Y COMUNICACIÓN S.L. Entreto2 Auzolan Valdizarbe	5.789,07	5.789,07	
TALLER DE COMUNICACIÓN SAIOA S.L. Barrios de Iruña	1.996,74	1.996,74	
TALLER DE COMUNICACIÓN SAIOA S.L. Vivir en Barañain	1.413,55	1.413,55	
UXUE COMUNICACIÓN S.L. La Voz de la Medindad	7.236,34	7.236,34	
AXULAR KULTUR ELKARTEA Axular	7.504,82	7.504,82	
BIERRIK FUNDAZIOA Guxiex	21.263,64	21.263,64	
IPARRALDEKO MANKOMUNITATEA Pulunpe	12.508,03	12.508,03	
MAILOPE KULTUR ELKARTEA Mailope	12.508,03	12.508,03	
TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA Ttipi-Ttapa	21.263,64	21.263,64	
Ayto. de LEKUNBERRI Aralar Irraitia	11.257,22	11.257,22	
Ayto. de ETXARRI ARANATZ Beleixe Irratia	13.758,83	13.758,83	
LEITZAKO UDALA Karrape Irratia	11.257,22	11.257,22	
IPARRALDEKO MANKOMUNITATEA Esan-Erran Irratia	11.257,22	11.257,22	
JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA Irati Irratia	11.154,50	11.154,50	
XORROXIN ELKARTEA Xorroxin Irratia	26.266,85	26.266,85	
	210.000,00	204.663,08	

KAZETARIEN PRESTAKUNTZA:

	BAIMENDUTA	ORDAINDUTA	BEKA KOPURUA
2010. urtea	10.000 euro	2.112 euro	2 beka eman ziren
2011. urtea	5.000 euro	3.740 euro	3 beka eman ziren

ZE BERRI

ZE BERRI? UDAL ALDIZKARIA				
	2008	2009	2010	2011
Laguntza tokiko erakundeentzat	10.758,77	15.700,00	10.000,00	10.000,00
4 orrialde gehitzea			8.036,95	4.229,88
Aleak erostea			2.910,72	2.044,24
Posta bidez banatzea			8.018,72	3.915,32
GUZTIRA	10.758,77	15.700,00	28.966,39	20.189,44
OHARRAK				
2010. urtean, bi zenbakitan, 4 orrialde gehiago finantzatu ziren				
2011. urtean, zenbaki bat baino gehiagotan, 4 orrialde gehiago finantzatu ziren				
2010. urtean zenbaki bakoitzeko 3.000 ale erosi ziren ikastetxeetan banatzeko				
Posta-gastuak 8.018,72 eurokoak izan ziren				
2011. urtean 3 zenbakiren 3.000 ale erosi ziren ikastetxeetan banatzeko				
Posta-gastuak 3.915,32 eurokoak izan ziren				

IKUS-ENTZUNEZKO FUNTSAK ESKURATZEA

2010. urtean 10.000 euro gastatu ziren Nafarroako komunikabideei ikus-entzunezko funtsak eros-teko. Helburua Euskararen Mediatekaren funtsak handitzea izan zen, "Soziolinguistikako eta Hezkuntzako Argitalpenak" partidaren kargura.

2011. urtean 15.000 euro gastatu ziren Nafarroako komunikabideei ikus-entzunezko funtsak eros-teko. Helburua Euskararen Mediatekaren funtsak handitzea izan zen, "Euskarari buruzko programak komunikabideetan" partidaren kargura.

2.B) 2012ko ekitaldirako aurreikusi diren laguntza ekonomiko zein materialeko planak eta horri lotutako aurrekontu aurreikuspena.

2012. urtean euskararen presentzia komunikabideetan sustatzeko Hezkuntza Departamentuak erabiliko duen estrategiak bi erreferentzia saihestezin ditu:

- Gaur egungo testuinguru ekonomikoaren mugaketak.

- Eraginkortasuna eskuragarri dauden baliabideen inbertsioan.

Aurreko deialdietako emaitzak aztertuz gero, datu interesgarriak lortu daitezke sektorearen esku-hartzeari lehentasuna emateko:

A. Gutxi iraun duten komunikabideak egon dira. 600.448,05 euro gutxi gorabehera 5 deialditan parte hartu zuten 59 komunikabideren artean banatu ziren. Orain dela zenbait urtetik hona antzeman daiteke aurkeztutako proiektu kopuruak behera egin duela.

B. Euskaraz, nolabaiteko tamaina duten hiru enpresek 17 deialditan baino gehiagotan parte hartu dute (T tipi tupa fundazioa, Bierrik fundazioa eta Xorroxin irratia) eta 1.985.228,10 euro jaso dituzte euren proiektuak garatzeko. Komunikazio enpresak dira; horietan, egitura eta langileen ondoriozko gastuak ekoizpen gastuak baino garrantzitsuagoak dira. 250.000 euro baino gehiagoko aurrekontuak aurkeztu dituzte.

Hainbat urtetan diruz lagundu ostean, komunikabide horiek euren maiztasuna handitu dute eta doako zabalkundea mantendu dute. Enpresa horien mantentzea gastuen eta diru-sarreraren kudeaketa zorrotzean oinarritu behar da. Ezin da inola ere komunikabideetan euskara sustatzea helburutzat duen diru-laguntza baten menpe egon.

C. Tokiko erakundeek ere komunikabideei diru-laguntzak ematen dizkiete. Izan ere, zenbait kasutan euren jabeak dira. Irati, Beleixe, Aralar, Karrape eta Esan Erran irratien eta Mailope, Pulunpe eta

Zer berri? argitalpenen kasua da. Komunikabide horiek 1.028.961,06 euro jaso dituzte eta batz bestea diru-laguntzen 16 deialditan parte hartu dute.

Zenbait kasutan, bi finantzazio bide antzeman daitezke: deialdietan parte hartzea eta udaletatik datorrena.

Egoeraren erradiografia horri komunikabideek komunikazioaren teknologiek aurkeztu dituzten formatu berriei eta eskaintzen dituzten aukerei egokitzeko duten erronka gehitu behar zaio.

Informazioa bilatzeko eta komunikatzeko moduetan egon den aldaketaren gaineko diagnosis adostasun zabala dago. Gero eta gehiago herritarrek sarea erabiltzen dute informazioa bilatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak, 22 urtetan zehar egindako ekarpenen bidez komunikabideen sorrerari emandako laguntza eta gero, denboraldi honetan komunikazio formatuen eguneratzeari laguntza materiala emateari lehen-tasuna emango dio.

2004ko deialditik, partidaren portzentaje bat komunikabideen titularrek garatutako on-line proiektuak finantzatzeko erreserbatzen zen (zerbitzaria, diseinua, linea mantentzea, weba...) baina 2011ko deialdian, portzentaje bat erreserbatu beharrean, zera erabaki zen: on-line bertsioak eguneratuta mantentzen dituzten komunikabideei puntuazio gehiago esleitzeko irizpidea gaineratu zen. Halaber, 2009tik aurrera partida bat sortu zen informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzeko. Partida hori jarduera kulturalak sustatzeko deialdian parte hartzen zuten erakundeek web orrialdeen sorrera eta mantentzea diruz laguntzera zuzentzen zen.

Aurten komunikabideei laguntza materiala eskaintzeko tresnak eta lizentziak sortzen eta eskuratzen kontzentratuko gara, gaur egun gailentzen ari diren informazio formatuetan euskararen presentzia errazteko helburuarekin.

Modu horretan, dagoeneko abian jarri den esku-hartzea komunikabideetan euskararen presentzia modernizatzeko eta euskara zabaltzeko funtsezkoa dirudien alderdi batean indartuko da.

2012. URTERAKO AURREKONTU AURREIKUSPENA

- Aurreko laguntzak partida bakar batean bateratu dira, "Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzea" izenekoan, 49.828,00 euro jaso dituena. Espero dugu horri

esker esku-hartze ildo horri bultzada nabarmena emateko aukera izatea.

– *Nafarroako Unibertsitateko komunikazio fakultatearekin hitzarmena mantenduko da, kaze-tariak euskaraz prestatzeko praktikak beken bidez laguntzeko, iaz aurrekontuan sartu zen antzerako zenbatekoarekin, hau da, 5.000 euro.*

– *Halaber, 16.000 euroekin indartu da argitartze-funtsak eta ikus-entzunezko funtsak erosteko ildo eta 2.000,00 euro izatetik 18.010,00 euro izatera pasa da.*

– *Era berean, Euskararen Mediatekaren ikus-entzunezko funtsak herritarren esku jartzea ahalbidetzen duen partidak gastatzeko ahalmena handitu du, 1.000,00 eurotik 21.576,00 eurora.*

– *Euskararen erabilera sustatu dezaten tokiko erakundeei ematen zaizkien laguntzak barne hartzen dituen programak, bere aldetik, iazko zenbateko bera mantendu du, 163.601 euro. Beraz, euren esku-hartzeari dagokionez, euren titulartasunekoak diren komunikabideentzako laguntzari lehentasuna emango diote, orain arte egin duten moduan, baliabide horien erabilerarekin edo komunikabideei dituzten baliabide ekonomiko eta materialak lagaz, tokiko erakundeen ohiko finantzazio testuinguruarekin bat eginez.*

Horrek bermatzen du tokiko erakundeei, 2012. urtean, laguntza bera jasoko dutela aurrekontuari dagokionez, egokitzeaz joz gero, Mailope eta Pulunpe argitalpenak mantentzeko.- bai eta Irati, Beleixe, Aralar, Karrape eta Esan Erran iratiak ere.

– *eta udalen arteko Ze berri? argitalpena.*

– *Azkenik, Euskarabidea-Nafarroako Euskararen Institutua komunikabideei laguntzeko prest dago (euskara erabili dezaten), betiere dituen baliabideak aintzat hartuta. Laguntza hori erakunde horrek dituen giza baliabideen bitartez edo baliabide materialen bidez gauzatu daiteke.*

III. APLIKATZEKO DEN ESPARRU JURIDIKOA.

Txosten honen sarreran adierazi den moduan, eduki materialari edo hondoan dagoen kontuari dagokionez, euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikagarria da.

1. artikuluari jarraiki, foru lege horren helburua euskararen ohiko erabilera ofiziala gizarte bizikidetzaren eremuetan arautzea da eta lortu nahi dituen funtsezko xedeen artean hauek daude: herritarrek euskara ezagutzeko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta Nafarroan euskararen berresku-

rapena eta garapena bultzatzea, erabilera sustatzeko neurriak hartuz.

Euskararen berreskurapena babesteari eta haren garapena bultzatzeari lotutako helburu zehatz horri dagokionez, hau da, Nafarroaren berezko hizkuntza horren erabilera bultzatzeari dagokionez, foru legearen III. tituluak euskara eta gizarte komunikabideen kontua jorratu du eta horren arauketa bi manutan zatitu du: 27. eta 28. artikulua.

Dagoeneko aipatu dugun moduan, 27. artikulua Nafarroako Herri Administrazioei egin behar bat ezarri die, gizarte komunikabideetan, bai pribatuetan, bai publikoetan, euskararen mailaz mailako presentzia sustatzea hain zuzen ere. Horretarako, Nafarroako Gobernuari eskatu dio, alde batetik, laguntza ekonomiko eta materialeko planak egin ditzan komunikabideek euskara ohiko moduan eta mailaz maila erabili dezaten eta, bestetik, Foru Komunitateak kudeatzen dituen gainontzeko komunikabideetan, telebista eta irratiaren euskara modu egokian erabiltzen dela bermatu dezala.

Bestalde, 28. artikulua egin behar bat ezarri die Nafarroako Herri Administrazioei: adierazpen kultural eta artistikoak, liburuen edizioak, ikus-entzunezko ekoizpena eta euskaraz gauzatzen den beste edozein jardura babestea.

Modu horretan, foru legeak hauxe ezarri du egin behar gisa:

a) Nafarroako Herri Administrazio guztiek, gizarte komunikabide publiko zein pribatuetan, euskararen presentzia sustatu behar dute.

b) Komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabili dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatu behar ditu.

c) Nafarroako Gobernuak bermatu behar du Foru Komunitateak kudeatzen dituen gainontzeko komunikabideetan, telebistan zein irratiaren euskararen presentzia egokia dela.

d) Nafarroako Herri Administrazio guztiek adierazpen kultural eta artistikoak, liburuen edizioak, ikus-entzunezko ekoizpena eta euskaraz gauzatzen den beste edozein jardura babestu behar ditzute.

Bestalde eta Espainiak 2001eko otsailean 1992an Estrasburgon egin zen Erregio eta Gutxiengoen Europako Gutuna berretsi zuenez (berrespena irailaren 15eko 222. zenbakiko BOEn argitaratu zen), aintzat hartu behar da nazioarteko hitzarmen horrek 11. artikuluan xedatzen duena -1. paragrafoan a.i, b.i, c.i, d, e.i, f.i eta g. ataletan, 2.

paragrafoan eta 3. paragrafoan-. Izan ere, Nafarroako euskararen kasuan aplikagarria da, komunitate horren zati batean hizkuntza ofiziala baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko lege organikoarekin bat eginez.

Manu horri jarraiki, aplikagarria den zatian, Espainiako estatuak ondorengo konpromisoa hartu du:

a) Gutxienez euskarazko irrati bat eta telebista kate bat bermatzea.

b) Gutxienez, euskaraz irrati bat sustatzea edo horren sorrera erraztea.

c) Gutxienez, euskaraz telebista kate bat sustatzea edo horren sorrera erraztea.

d) Euskarazko entzunezko eta ikus-entzunezko lanen ekoizpena eta zabalkundea sustatzea eta/edo erraztea.

e) Gutxienez, euskarako prentsa-organo bat sustatzeko eta/edo horren sorrera eta/edo mantentzea erraztea.

f) Euskara erabiltzen duten komunikabideen kostu gehigarriak ordaintzea legeak, oro har, komunikabideentzako finantza-laguntza aurreikusiten duenean.

g) Euskara erabiltzen duten komunikabideentzako kazetarien eta gainontzeko profesionalen prestakuntzarako laguntza eskaintzea.

h) Ondoko herrialdeek euskarazko irratiak eta telebistak zuzenean eta modu askean hartzeko aukera izango dutela bermatzea eta ez egitea aurka hizkuntza horretan egiten den ezein irrati-edo telebista-emankizuni.

i) Idatzizko prentsan adierazpen askatasunari eta euskarazko informazioaren zirkulazio libreari ez zaiola mugaketarik jarriko ziurtatzea.

j) Euskaraz hitz egiten duten herritarren interesek ordezkartza dutela edo legearekin bat eginez eratzen diren egituren testuinguruan aintzat hartuko direla ziurtatzea, komunikabideen askatasuna eta aniztasuna bermatze aldera.

IV. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK.

1. Gizarte komunikabideetan euskararen presentzia arautzen duen esparru juridikoa dago, euskarari buruzko foru legearen 27. eta 28. artikuluek (lehenengoa bereziki) eta Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Gutunaren 11. artikulua osatzen dutena.

2. Manu horiek ezarritako aginduak eta konpromisoak Nafarroako Foru Komunitateko administra-

zioak bete behar ditu, bai eta eskumena duten Nafarroako Herri Administrazioek ere, horiek baitira horien guztien jasotzaileak.

3. Edonola ere, agindu eta konpromiso horiek betetzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta Nafarroako Herri Administrazioek baliabide ekonomiko eta material nahikoak eduki behar dituzte eta, aldi berean, horretarako Nafarroako Parlamentuak xedatzen dituen aurrekontu eskuragarritasun nahikoak behar dituzte. Izan ere, parlamentua da ekitaldi bakoitzean Nafarroako Aurrekontu Orokorrek eztabaidatzeko, zuzentzeko eta, azkenik, onartzeko eskumena daukana. Ondorioz, legeek herri-administrazioei ezarri dizkieten aginduak eta konpromisoak betetzeko aukera emango dieten aurrekontu partidak lortzen baitira.

4. Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioak emandako informazioa aintzat hartuta, egiaztatu daiteke, gutxienez 2012. urtera arte, une oro eta denboran zehar mantenduz, Nafarroako gizarte komunikabideetan euskararen presentzia bultzatzeko neurriak hartu direla. Halaber, erakunde honek ez du jaso zenbatekoen urritasunak eragin-dako kexarik eta ez du kontu hori zertan baloratu.

5. Horrez gain, egiaztatu da azken urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek aurrekontu partida bat erreserbatu dutela gizarte komunikabide publiko zein pribatuetan euskararen erabilera sustatzeko, euskararen gaineko foru legearen 27.1. artikulua betez.

Hala, 2011. urtean, 230.000 euro eman ziren gastuko aurrekontuaren 44100-44001-4819-334100 partidan, "euskarari buruzko programak komunikabideetan" izenarekin.

2010ean zenbateko bera eman zen, 230.000 euro gastuko aurrekontuaren 44100-44001-4819-334100 partidan, izen berarekin: "euskararen gaineko programak komunikabideetan".

6. Aurreko urteetan ez bezala, egiaztatu da 2012. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez dela aipatutako aurrekontu partida existitzen "euskararen gaineko programak komunikabideetan", helburutzat komunikabideetan euskara erabiltzea duena.

7. Horri dagokionez, bulego honek, komunikabideetan euskara erabiltzea helburu duen aurrekontu partida kendu izanagatik Topagunea kolektiboa, euskaraz lan egiten duten komunikabideen ordezkartzan, orain dela gutxi aurkeztu duen kexa bat kontuan hartuta, ondorengo adierazi zuen:

"Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 27.1. artikulua xedatu du herri-administrazioek gizarte komunikabide publiko zein

pribatuetan euskararen mailakako erabilera sustatuko dutela eta, horretarako, Nafarroako Gobernuak ekonomikoki eta modu materialean laguntza emateko planak eratuko dituela komunikabideek euskara ohiko moduan eta mailaz maila erabili dezaten.

Legezko agindu horrek hitzez hitz dioen moduan, komunikabideetan euskararen erabilera mailaz maila sustatzeko eta laguntzeko planak antolatze-ko betebeharren jasotzaileak herri-administrazioak eta Nafarroako Gobernua dira. Logikoaenez, horiek foru legeak ezarri dizkien aginduak bete behar dituzte eta bertan adierazitako helburuak lortu behar dituzte. Horretarako, Nafarroako Aurrekontu Orokorrek euren esku jartzen dituzten baliabide ekonomikoekin bat eginez jardun behar dute; izan ere, aurrekontuen legezketasunaren printzipioaren arabera, gastu publikoa onartutako eta argitaratutako aurrekontuek aldeztu aurretik xedatzen dutenaren menpe dago.

Dena den, kexan adierazi den moduan, kasu honetan, 2012. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek dira aurrekontu partida bertan behera utzi dutenak. Partida hori orain arte urtero onartu egin da gizarte komunikabideetan euskararen erabilera bultzatze aldera. Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Nafarroako Gobernuak egiten eta bidaltzen baditu ere (ekimena berea baita), horien inguruan eztabaidatzea, aldatzea proposatzea eta onartzea Nafarroako Parlamentuaren eta foru lege baten eskumena da, hala ezarri baitu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 18.1. artikulua. Hortaz, onartzeko ardura Nafarroako Gobernua ez den erakunde baten esku dago, horrek esan nahi du bi irizpideak ez direla halaberrez berdinak izan behar.

Nafarroako Parlamentua eta bere foru lege bat direnez ekitaldi zehatz batean aurreko ekitaldietan ematen ziren laguntzak deuseztatu edo murrizteko erabakia hartzen dutenak (horretarako, aurreko ekitaldietan erabakitakoa ez da loteslea), aurrekontu bakoitza urteko eta aurrekoarekiko independentea da. Beraz, erakunde honek ezin du baieztatu, legearen menpe dagoenez, herri-administrazioek edo Nafarroako Gobernuak euskarari buruzko foru legearen 27.1. artikulua bete ez dutenik; izan ere, adierazi bezala, agindu horiek bete behar dituzte Nafarroako Parlamentuak ezartzen dituen aurrekontuen erabilgarritasunen testuinguruan eta eskuragarritasunik ez badago, zentzu hertsian, ez da administrazioaren ez-betetzerik gertatu.

8. Eta, kexa beraren harira, haxe ondorioztatu eta proposatu zuen:

"2012. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorren ezaugarria gastu publikoa modu bortitzean murriztu dela da. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak azaldutakoaren arabera, helburua da Nafarroako Foru Komunitateari, estatutarekin eta Europar Batasunarekin dituen konpromisoen testuinguruan, dagokion gastu publikoaren defizita betetzea eta aurreikusi daitekeen diru-sarreraren publikoaren beherakadari aurre egitea. Hori guztia Europar pairatzen ari den krisi ekonomiko larriaren testuinguruan, krisiak Espainia indar handiagoarekin jipoitu baitu. Zentzu horretan, eta errealitate hori aintzat hartuta, aurrekontu partida, programa edo plan jakin batzuk murriztu izana ez da gehiegizko neurri bat edo justifikaziorik gabeko neurri bat.

Hala eta guztiz ere, egia da euskarari buruzko foru legea erabateko gehiengoaren lege bat dela, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan berariaz aipatzen dena. Horren helburu nagusiak hauek dira: herritarrek euskara, Nafarroako berezko hizkuntza eta eremu euskaldunetako hizkuntza koofiziala, ikasteko eta erabiltzeko duten eskubidea bermatzea eta Nafarroako ondare kultural eta historikoa den berezko hizkuntza horren berreskuratzea eta garapena sustatzea. Horretarako, gizarte komunikabide publiko zein pribatuetan euskara mailaz maila erabiltzearen alde egin du eta, xede horrekin, komunikabideetan euskara erabili dadila laguntza ekonomiko zein materiala emateko laguntza planak eratzeke agindua eman du.

Hori dela eta, erakunde honek uste du gastuaren murrizketa bortitzari lotutako gaur egungo errealitate ekonomikoa; legegilearen nahia, gizarte komunikabideetan euskararen mailakako presentzia laguntzeari buruzkoa eta legegilearen beste nahia, hau da, komunikabideei laguntza egonkorra ematea bateragarriak direla, hiru helburuei uko egin gabe eta lehenengoak gainontzekoak kontuan hartuta eta besteek lehenengoak kontuan hartuta.

Xede horrekin, berriro gogorarazi behar dugu euskarari buruzko foru legearen 27.1. artikulua Nafarroako Gobernuari helburu hau esleitu diola: komunikabideek mailaz maila eta ohiko moduan euskara erabili dezaten "laguntza ekonomikoa eta materiala emateko planak egin ditzan".

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, orain arte eman diren laguntzen kudeatzailea den heinean, ondorengo gomendio hau egitea egokitzen joan aipatutako hiru helburuak biltzeko asmoz:

“Hainbat urtetarako plan bat eratu dezan (hala nola, lau urteko aurreikuspenarekin) euskara erabiltzen duten edo erabili nahi duten komunikabideei laguntzeko, bai ekonomikoki, bai modu materialean. Hala, administrazioak eta onuradunek aldeztu aurretik ezagutu ahalko dituzte urte bakoitzean euskararen erabilera sustatzeko dauden baliabide ekonomiko eta materialak, gaur egungo egoera ekonomikoan aurreikusten diren eskuragarritasun ekonomikoaren eta aurrekontuen eskuragarritasunen testuinguruan. Halaber, lortu nahi diren helburuak, ezarritako baliabideak eta laguntza publikoa eskuratzeko irizpide orokorrak aurreikusiko dira.

Era berean, plana onartu baino lehen, gizarte komunikabideentzako entzunaldi izapidea antolatuta behar da, planaren eraketan behar bezala parte hartu dezaten.”

9. Aurreko iradokizuna Hezkuntza Departamentuari bidali ostean, 2012ko apirilaren 10ean erantzuna jaso zen. Bertan, zera azaldu zuen:

“Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren iradokizunari dagokionez, Oskar Zapata Solano jaunak, euskaraz lan egiten duten komunikabideen ordezkartzan, aurkeztu zuen kexa hizpide duena (esp. 11/726/C) eta komunikabideetan euskararen erabilera sustatzea helburu zuen XX urteko aurrekontu-partidaren deuseztapena salatzen duena, jaso dugun informazioa ikusita zera jakinarazi nahi dizut:

Euskarabideako 2012ko aurrekontuek gizarte komunikabideetan euskararen sustapena barne hartzen dute zenbait ildotan:

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara sustatzea (49.828,00 €). Erabilera lizentziak eta plataformak eskainiko dira interneteko presentzia eta euskara erabiltzen duten komunikabideen zabalpena hobetzeko.

- Euskara erabiltzeko kanpainak (55.000 €), horien artean, 12.000 € kontratatuta egiten dira ZeBerri? aldizkariari egiten zaion ekarpenaren bitartez.

- Argitaratze eta ikus-entzunezko funtsak erostea (18.010,00 €). 8.000 € Xaloe TV izenekoarekin kontratatuta dira eta 5.000 € Sakanako euskarako modalitatean funtsak erosteko erabiliko dira.

- Euskararen Mediateka (21.576,00€), ikus-entzunezko eta idatzizko dokumentuen eskuragarritasuna hobetuko duena.

Herritarren informazioa bilatzeko eta komunikatzeko modua aldatu egin da eta aldaketa horretara egokitzeko beharra sustatzea garrantzitsua da. Hortaz, gomendatzen da eskuragarri dauden bali-

abideak ildo horretan laguntza materiala eskaintzera zuzentzea, are gehiago sektorearen berregituratze sakona aintzat hartuta: TV enpresen fusioa, irratientzako lizentzien deialdia eta euskaraz lan egiten duten komunikabideen arteko azterketa eta lankidetzak ekimenak (Andoain, 2012ko martxoaren 13a) beste ekimen batzuen artean.

Bestalde, 2012/2015 denboraldiari dagokion Nafarroako Gobernuaren Programazio Ekonomikoa (GPE) eratze-fasean dago eta gaur egungo egoera aintzat hartuta, helburu nagusiak defizitarren helburuak betetzea izaten jarraitu beharko du. Izan ere, kontu horrek aurrekontu publikoa zuhurtasunez kudeatzea eskatzen du.

Zentzu horretan, 2012ko otsailaren 1eko gobernuaren erabakiak ezartzen du programazio mota hori lehentasunak ezartzeko eta funts publikoak behar bezala kudeatzeko beharrezkoa den tresna bat dela, bai eta bertan kokatzen diren hainbat urtetarako konpromisoak ahalbidetzeko eta departamentuei, programatutako denboraldian zehar, jarduera-testuingurua ezagutzeko aukera emateko ere.

Modu horretan, Arartekoaren iradokizunaren oinarriarekin, hau da, epe ertainean plangintza bat egitea hobe dela, modu horretan, onuradunek lortu nahi duten helburuarentzat ezarritako baliabideak aldeztu aurretik ezagutu ahalko dituzte, bat etortzearen kaltetan izan gabe, gaur egungo egoera ekonomikoak eta horren inguruan jazo diren gertakariak, une honetan, ez dute gomendatzen komunikabideei laguntzeko politika bat diseinatzea epe ertainerako baizik eta urte baterako; izan ere, oraindik ez da onetsi Gobernuaren Programazio Ekonomikoa (GPE), beraz, momentuz hobe da urteko aurrekontu politikei egokitzea.

Zentzu horretan, eskertzekoa litzateke, erakunde honek gogoan dituen une honetako salbuespenezko inguruabarrak aintzat hartuta, urteko aurreikuspena egokitzea jotzea, GPEn baloratzen denaren kaltetan izan gabe eta ekitaldi honi zein hurrengo aurrekontu-ekitaldiei begira.”

10. Aurreko guztiarekin bat eginez, zera iradoki nahi da:

a) Nafarroako Parlamentuari: Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, egokitzea jotzen duen zenbatekoarekin, euskarari buruzko foru legearen 27.1. artikulua betetzeko aukera ematen duen aurrekontu partida edo partidak gaineratu ditzan.

b) Nafarroako Gobernuari: euskarari buruzko foru legearen 27.1. artikuluan xedatutakoa garatuz, hainbat urtetarako plan bat eratu dezan euskara erabiltzen duten edo erabili nahi duten komunika-

bideei laguntzeko, bai ekonomikoki, bai modu materialean. Hala, administrazioak eta onuradunek aldeztu aurretik ezagutu ahalko dituzte urte bakoitzean euskararen erabilera sustatzeko dau- den baliabide ekonomiko eta materialak, aurrei- kusten diren aurrekontuen eskuragarritasunen tes- tuinguruan. Halaber, lortu nahi diren helburuak,

ezarritako baliabideak eta laguntza publikoa esku- ratzeko irizpide orokorrak aurreikusiko dira.

Era berean, Nafarroako Gobernuari iradoki nahi diogu, plana onartu baino lehen, gizarte komunikabideentzako entzunaldi izapidea antolatu dezala, planaren eraketan behar bezala parte har- tzeko aukera eduki dezaten.

